

**ANIMALIAK EDUKITZEAREN ETA BABESTEAREN GAINEKO
ORDENANTZA ARAU-EMAILEA.**

ZIOEN AZALPENA.

Animalien Babesari buruz Eusko Legebiltzarrak emandako urriaren 29ko 6/1993 Legeak gutxieneko marko juridikoa ezarri zuen, gizakiak eta animaliak elkarrekin bizitzeko modua antolatzeko, betiere osasungarritasun publikoa alde batetik, eta bestetik animalien errespetua eta babesa uztartuz, guzti-guztion interesei lotutako oreka baten barruan.

Lege hori argitaratu eta indarrean sartu zenetik, gero eta animalia gehiago edukitzen dira eta horrekin batera gizartea gero eta jabetuago dago animalien eskubideez eta gizarte eremu modernoetan gizakiak eta animaliak elkarrekin bizitzeko modak antolatzeko marko handiago baten premiaz.

Bestalde, arloaren araudia emateko prozesu garrantzitsua izan da, eta horren erakusgarri nagusia beharbada Animalia Arriskutsuak Edukitzearen Araubide Juridikoaren gaineko abenduaren 23ko 50/1999 Legea izan da. Izan ere, animalia arriskutsuak edukitzeak gizartean pizten duen alarma ikusita, araubide zorrotza ezarri du lege horrek animalioak edukitzeko, aurretiazko lizentzia eta animaliak edukitzeko baldintza bereziak nahitaez bete beharra barne.

Hasieran, araubidea behar bezala aplikatzeko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen garapenik eza zela-eta, eremu autonomikoa hautatu zen berariazko arau bat onesteko, eta halaxe egin zen Zakurrak Edukitzea Arautzen duen apirilaren 4ko 66/2000 Dekretua Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan. Bestek beste, arriskua duten animalien izendapena ezarri zuen, zenbait animalia edukitzeari buruz gizarteak dakarren kezkari erantzuna emateko. Aitzitik, arau horren indarraldia zalantzan gelditu zen abenduaren 23ko 50/1999 Legea garatu duen martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretua argitaratu ondoren. Dekretu horrek aipaturiko legea aplikatzeko eremua zehatz zedarritu zuen, neurri handi batean oso oinarritzkoa zelako aurrekoa.

Sortutako segurtasunik ezaren egoera gainditzeko eta erregulazio marko egonkorra finkatzeko, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko animaliak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretua argitaratu da. Hainbat berrikuntza sartuta, aurretiazko araudi bat egin du, beharrezkoa denean, Animalien Babesari buruzko urriaren 29ko Legearen testuinguruan kokatuta.

Horrela, bada, ordenantza honek hori prozesu guztia bildu eta eguneratzen du, baita animaliak edukitzeko, babesteko eta merkaturatzeko prozesuan eragina duten bestelako arauak ere, betiere udalaren eremura egokituta, halako moldez non lanabes baliagarria eta eraginkorra izango baita animaliak edukitzearekin lotutako alderdien eta jardute-eremuen arteko konplexutasuna kontrolatzeko eta arlo horretan jarduteko, baita animaliak eta gizakia gizarte modernoetan eta konplexuetan elkarrekin bizitzeko fenomenoan ere.

I. TITULUA. XEDEA, APLIKAZIO EREMUA ETA DEFINIZIOAK.

I. KAPITULUA. XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA.

1. artikulua.-Xedea.

Ordenantza honen xedea da Berangon dauden animaliak babesteko, edukitzeko eta saltzeko arauak ezartzea, zentsuan edo bertan erregistratuta dauden ala ez kontuan izan barik, jabeak bizi diren tokia edozein delarik ere. Hartara, animaliak eta pertsonak elkarrekin bizitzea arautuko da, zeren eta elkarrekin bizitze horrek arriskuak baitakartza ingurunearen osasungarritasunerako eta pertsonen eta ondasunen osasunerako eta segurtasunerako.

Horretarako, animaliek izan behar duten gutxieneko zaintza ezartzen du tratuari, higieneari, zaintzari, babesari eta garraioari dagokienez, eta osasun establezimenduetan egotearen, osasun laguntzaren eta animaliak merkaturatzearen eta salmentaren gaineko arauak ezarri ditu.

Halaber, animalia arriskutsuak edukitzeari buruzko araubide juridikoa arautu da, eta bertan xedatu dira lizentzia eskuratu beharra, edukitzearen baldintza orokorrak eta erregistroen araubidea.

2. artikulua.-Bazterketak.

Honako hauek baztertuta gelditzen dira ordenantza honetatik, eta beren araudia izango dute:

- a) Ehiza.
- b) Arrantza.

- c) Baso faunak ingurune naturalean zaintzea eta babestea.
- d) Zezenekin eginiko ikuskizunak.
- e) Abeltzaintza, hornidurarako animaliak hezteko jarduera den aldetik, baldin eta beste administrazio eskudun batzuek badaramate kontrola.
- f) Animaliak saiakerak egiteko eta bestelako helburu zientifikoetarako erabiltzea.

II. KAPITULUA. DEFINIZIOAK.

3. artikulua.-Definizioak.

1. Bizirik irauteko pertsona baten laguntza behar duenari deritzo etxeko animalia, ordenantza honen ondorioetarako.
2. Etxekotutako animaliarri deritzo basoan eta libre jaio arren pertsonak ikustera eta pertsonekin lagunduta egotera ohituta dagoena; azken finean, pertsonaren laguntza behar du bizirik iraun ahal izateko.
3. Gatibutzako animalia basatiak dira basoan edo gatibutzan izan barik jaio arren gatibutzan bizi direnak etxeko bihurtzeko, baina ikaskuntza prozesuetan murgildu barik.
4. Animalia arriskutsuak dira, fauna basatikoak izanik, etxeko edo laguntzarako animalia gisa erabiltzen direnak, haien agresibitatea kontuan izan barik. Talde horretakoak dira pertsonen eta animalien heriotza edo lesioak eta gauzei kalteak eragin diezazkieketen espezieak edo arrazak.
Animalia arriskutsutzat joko dira ere arauetan ezarritako etxeko edo laguntzako animaliak, eta bereziki, ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuko I. eta II. eranskinetan finkaturiko zakur espezieak, baita horren 10.1.c) artikuluan halakotzat jotzen direnak ere.
5. Ustiapenerako animaliak dira gizakiarekin bizitzera ohituta dauden eta gizakiak irabazteko asmoarekin erabiltzen dituen animaliak, bai animaliak eurak, bai haiek sorrarazten dituzten irabaziak daudenean.
6. Edukitzeko baldintza bereziak dituzten zakurrak izango dira zenbait zakur espezie, haien ezaugarri etologikoak direla-eta udal agintariak espezieok edukitzeko baldintza bereziak jarri dizkietenak.

II. TITULUA.. ANIMALIAK EDUKITZEARI BURUZKO ARAUBIDE JURIDIKOA.

I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK.

4. artikulua.-Betebeharrak.

1. Animalia jabeak egoera onean eduki behar du animalia higiearen eta osasunaren aldetik, eta hura gordetzeko instalazio egokiak, janaria eta edariak, albaiari-laguntza eta ariketa fisikoa egiteko aukera emango dizkio. Espeziearen eta arrazaren arabera behar fisiologikoak eta etologikoak aintzat hartuz tratatuko du animalia.

2. Zehazkiago, gutxienezko honelako baldintza hauek ezarri dira animaliak mantentzeko:

a) Elikadura eta osasun maila onari eusteko ur edangarria eta nahikoa janaria eta orekatua ematea.

b) Animaliak ez sufritzeko eta ongi bizitzeko behar diren toki, aireztapen, hezetan, argi eta aterpe egokiak eta beharrezkoak izatea.

c) Animaliak bizi diren tokiak garbi, desinfektatuta eta intsektu barik izatea, aldi-aldi gerozkiak eta txiza garbituta.

d) Ohiko bizitokia ezin da ibilgailua izan.

e) Animaliak ibilgailu partikularretan eraman ahal izateko, nahikoa toki eman behar zaie, estalita eta bat-bateko eguraldi aldaketetatik babestuta daudela, halako moldez non gidariari ez baitzaio eragozpenik jarriko, trafikoaren segurtasunari eutsiko baitzaio eta egoera onean izango baita alderdi etologikotik edo fisiologikotik begiratuta.

f) Barruan animalia bat duten eta aparkatuta dauden ibilgailuek ezin izango dute 4 ordu baino denbora luzeagoan aparkatuta egon, eta udako hileetan ahal dela itzala dagoen tokietan kokatutako dira, betiere uneoro aireztapen egokia izango dela bermatuta.

3. Animalia jabeak edota edukitzaileak uste badu animaliak gaixotasun kutsakorra izan dezakeela, horren berri emango dio albaiariari, eta albaiariak agintari eskudunari jakinaraziko dio baldin eta zoonosia izan daitekeen susmoa badago edo zoonosia dela berresten bada.

4. Pertsonak edota animaliak kutsatzeko moduko gaixotasuna duten animalia guztiak eutanasia sistema baten bidez hilko dira jabearen pentzura, betiere albaiariak egin badu diagnostikoa eta haren ustez animaliak hil behar badira.

5. artikulua.-Animaliak identifikatzea.

1. Zakurren jabeek edo edukitzaileek udalean identifikatu eta zentsatu behar dituzte animaliak hilabeteke epean, animalia jaio edo erosten denetik hasita, udalerrian modu iraunkorrean edo hiru hilabete baino denbora luzeagoan badaude. Debeku hori laguntzako beste animalia batzuei ere aplika dakieke.

2. Identifikazioa egiteko, zakurraren lepoko ezkerreko aldean mikrotxipa edo elementu mikroelektronikoa jarriko dio al baitari ofizialak edo foru edo udal al baitariak edo animalia txikiak tratatzeko ahalmena duen al baitari pribatuak. Elementu hori jartzeko, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko animaliak identifikatzeko metodo elektronikoen erabilera arautzeari buruz Nekazaritza eta Arrantza Sailburuak 1993ko maiatzaren 5ean emandako Aginduan xedaturikoa bete beharko da, baita ezar daitezkeen bestelako arauetan xedaturikoa ere. Animalia identifikatzeko unean, al baitari ofizialak edo ahalmena duen al baitari jarduleak kartila ofiziala, identifikazio agiri bat eta izena emateko eskabidea beteko ditu Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Animaliak Identifikatzeko Erregistro orokorrean (A.I.E.O.); erregistro hori 1993ko maiatzaren 5eko Agindua dela bide sortu zen. Agiria interesa dutenen eskura egongo da al baitari ofizialen edo ahalmena duten al baitarien bulegoetan. Ale bat al baitari jardulearen esku geratuko da, eta beste biak animalia jabeari emango zaizkio; horietako bat Eusko Jauraritzaren Nekazaritza eta Arrantza Sailari bidali beharko dizkio NANaren fotokopiarekin batera, datuak A.I.E.O.n inskribatzeko.

3. Zentsuko identifikaziorik ez izateak edo identifikazioa ezarritako epean ez egiteak arau-haustea izango du, Animalien Babesari buruzko Legearen 27.1. artikuluan xedatu dena dela bide.

4. Erregistroak dakartzan datuen edozein aldaketaren berri eman behar dio animalia jabeak A.I.E.O.ri; honako hauek hain zuzen ere:

a) Titularrari edota animalia jabe buruzko datuak aldatzea.

b) Titular aldaketak.

c) Animalia jabe baxa ematea, heriotza edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora behin betiko bizitokia aldatu dela eta.

d) Animalia galtzea edo lapurtua izatea.

Aldaketa 10 eguneko epearen barruan jakinarazi beharko da, salbu eta galera edo lapurretako kasuetan; halakoetan, 5 eguneko epea dago galera edo salaketa izan denetik hasita. Salaketaren kopia aurkeztu behar da.

Aldaketaren edo gorabeheraren eskabideari NANaren kopia erantsiko zaio, eta horretarako, udaletxean, Foru Aldundian eta ahalmena duten albaitarien interesen eskutan egongo den agiria erabili beharko da. a), c) eta d) kasuetan, ale bat bidaliko dio interesa duenak A.I.E.O.ri.

b) kasuan, hots, esku-aldaketa gertatzen denean salmenta, dohaintza edo indarreko legerian ezarritako beste edozein modu dela-eta, jarduleek aldaketa egiteko agiria bete beharko dute, zenbatua eta lau kopian emana. Esku-aldaketaren oharra eta ikus-onetsia kartilan agerrarazi behar da udalaren osasun zerbitzuan edo Aldundian, eta erabilitako agiriaren zenbakia idatzi beharko da bertan. Dokumentu bat jardulearen esku geldituko da, beste bat esku-aldatzailearen esku eta bi jabe berriaren esku. Jabe berriak ale bat bidali beharko dio A.I.E.O.ri hilabeteko epean esku-aldaketa egiten denetik kontatzen hasita.

Edozein lagapen edo salmenta egiteak berekin dakar jabe berriari animaliak behar bezala identifikatuta, zentsatuta eta zakurren kartila ofiziala eguneratuta eman beharra. Artikulu honetako zentsu-identifikazioan aldaketak erregistroari jakinarazten ez bazaizkio, Animalien Babesari buruzko Legearen 27.1.a) artikulua araberako arau-haustea ezarriko da.

6. artikulua.-Animaliak edukitzeko baldintzak.

1. Animalia duena izango da animaliak eragin ditzakeen kalteen eta eragozpenen erantzulea, Kode Zibilaren 1.905 artikuluan xedatu denarekin bat etorritz.
2. Animalia duenak beharrezko neurriak hartuko ditu gorozkiak herri bideetan eta guneeetan gera ez daitezen.

Atal honetan xedatu dena ez betetzea arau-hauste arintzat joko da, Hondakinei buruzko apirilaren 10/1998 Legearen 34.4.c) artikuluan xedatu denarekin bat etorritz, betiere lege horrek baimentzen dituen neurri osagarriak hartzeari kalterik egin gabe.

3. Zentsuan edota erregistroan erregistratuta egon behar duen animalia duenak edo hark baimendutako pertsonak animalia galdu dela salatu behar du hala denean.

7. artikulua.-Animaliak edukitzeko mugak.

1. Oro har, baimenduta dago etxeko animaliak eta etxekotutako animaliak etxe partikularretan edukitzea.
2. Udal agintari eskudunak animaliak edukitzea edota gehieneko animalia kopurua mugatu dezake animalia bizitzeko toki egokiaren, instalazioen eta egoera higieniko eta sanitarioaren arabera, baita arriskua edo eragozpen objektiboak daudenean ere auzokideentzat edo pertsonentzat oro har, edo animaliaentzat berarentzat edo beste animalia batzuentzat.

Animaliak edukitzeko edo animalia inoren esku uzteko egoerari buruzko informazioa eta dokumentazioa emateko eska diezaiokete udal agintariek interesa duenari. Hori bete ezik, arau-hauste larritzat joko da, ordenantza honen 44. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

8. artikulua.-Bertan behera utzitako animaliak.

Jatorriaren eta jabearen identifikaziorik ez daraman animalia eta pertsonaren batekin lagunduta ez dagoen animalia deritza bertan behera utzitako animalia, baita identifikazioa eraman arren hura galdu izanari buruzko salaketarik ez duen animalia ere, hain zuzen ere jabeak edo baimendutako pertsonak salaketarik jarri ez badu.

9. artikulua.-Bertan behera utzitako animaliekin jarraitu beharreko prozedura.

1. Administrazioak bilduko ditu bertan behera utzitako animaliak, bere zerbitzuaren edo hitzartutako zerbitzuaren bidez. Animaliak harrapatzeko eta garraiatzeko baliabideak egoera egokian izango dira higienaren eta osasunaren aldetik, eta ez diote beharrezkoa ez den sufrimendurik eragingo.
2. Aurreko puntuan aipaturiko animaliak legetan ezarritako denboran izango dira harrera zentroan. Baldin eta jabeak hura berreskuratu nahi badu, jabea dela egiaztatu beharko du, baita animalia mantentzeko eta egoteko gastuak ordaindu ere. Osasunaren edo arriskuaren egoera edo animaliaaren sufrimendua dela-eta epe hori behar den denboran murriztu daiteke, aipaturiko zerbitzuko albaitariak egoki irizten badiu.

3. Epe hori igarota ez badu inork identifikatu gabeko animalia eskatzen, ondorengo neurriak ezar daitezke, hots, animalia eskatzen duen partikularrari ematea, betiere animaliak administrazioaren eta osasunaren aldetik duen egoera erregularizatzen badu ordenantza honen I. Eranskinean ezarritakoaren arabera. Azkenean, animalia eutanasiatz hilko da.

Edozein unetan, laguntzako animalien zaintza beste pertsona juridiko edo juridikoei eskuordetu dakieke.

4. Animaliak identifikazioa badarama, animalia bildu edota atxiki dela modu sinesgarrian jakinaraziko zaio jabeari, eta jabeak zazpi lan eguneko epea izango du animalia berreskuratu ahal izateko, baina ez ditu ordaindu behar izango animalia harrera zentroan egotearen ondoriozko gastuak. Epe hori igarota jabeak animalia berreskuratu ezik, aurreko atalean ezarritako helmuga izango du animaliak.

5. Animaliak hiltzeko, animalia berehala konorterik gabe uzteko eta sufrimendurik eragiten ez duten prozedurak erabiliko dira, betiere albaitari baten kontrol eta erantzukizun pean.

10. artikulua.-Animalia deslaidak.

1. Animaliei, pertsoneri eta ondasunei eragin diezazkieketen eragozpenak ekiditeko, animalia deslaidak edo bertan behera utzitako animaliak daudela jakinaraziko diete herritarrek osasun zerbitzuei.

2. Debekatuta dago hegaztiei, zakurrei, katuei eta gainerako animalia deslaid guztiei herri bidean janaria ematea.

Atal hori ez betetzea arau-hauste arintzat joko da, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legearen 34.4.c) artikuluan xedatu denarekin bat etorritik, betiere legeak baimentzen dituen neurri osagarriak hartzeari kalterik egin gabe.

3. Hirian bizi diren animaliak kontrolik gabe ugaritzen direnean eta hala egitea justifikatuta dagoenean, animalion kopurua kontrolatzeko beharrezko egintzak burutuko dituzte udal agintariek.

11. artikulua.-Eraso baten aurrean jarraitu beharreko prozedura.

1. Animalia batek eginiko erasoaren salaketa edo jakinarazpena hartzen duen udal zerbitzuak eraso egin duen animalia jabea edota edukitzailea identifikatzeko

edozein datu jakinaraziko dio salaketa jarri duenari edo erasoaren berri eman duenari. Berehala jakinaraziko dizkio datuok administrazio espedientearen tramitatzeaz arduratzen den agintariari, hots, animalia zentsatuta dagoen udalari, edo bestela jabea bizi den herriko udalari. Gainera, dokumentazio guztia emango zaio.

2. Haginkadaz eginiko erasoaren kasuan, tramitazioa egiteko agintari eskudunak espedientearen hasi izana jakinaraziko dio Osasun Saileko Zaintza Epidemiologikoko Unitateari, baita foru aldundietako animalien osasuneko zerbitzuei ere.

Lesioak eragin dituen animalia jabeak edota edukitzaileak, 24 orduko epearen barruan, albaitari ofizialaren edo ahalmena duen eta hark hautatuko duen albaitariaren esku utziko du animalia azterketa egin diezaion 14 egunez zakurren kasuan, edo beste epe batez animalia arabera, edo unean uneko egoera epizootologikoa dela-eta hala egitea komeni denean, baina horretarako aurretiazko zioen txosten teknikoa egin beharko da. Haginkada egin ondoren 24 orduko epea igaro bada eta nahita egin ez badu, hala egiteko eskatuko dio udal agintari eskudunak, eta animalia animaliak hartzeko zentroan sartzeko edota bakartzeko agindua eman dezake (II. eranskina). Eskakizun hori ez betetzea arau-hauste larritzat joko da Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Antolamenduaren buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 36.2.b).1. artikuluan ezarritakoaren arabera, betiere araua betetzen dela bermatzeko beharrezko kautelazko neurriak hartzeari kalterik egin gabe. Nolanahi ere, emandako txosten egiaztatuaren kostua, horrelakorik balego, animalia jabearen edo edukitzailearen pentzura izango litzateke. Baldin eta animaliak jabe edo edukitzaile ezagunak ez badu, jakinaren gainean dagoen udal zerbitzua izango da animalia biltzeko eta behatzeko arduraduna. Azterketa hori espedientearen tramitatzeko udal eskudunari jakinarazi beharko zaio gertaerak izan eta 72 orduko epearen barruan.

Albaitariak behaketa edo azterketa egin beharko du, zoonosiak baztertzeko edo horren arriskuak detektatzeko eta animalia arriskua baloratzeko. Gainera, egiaztagiri edo txosten egokia egin beharko du behaketaren emaitzari buruz, III. Eranskineko ereduarekin bat etorriz. Jabeak edota edukitzaileak, behaketa amaitu ondoren, albaitariaren egiaztagiri edo txostena bidali behariko dio espedientearen tramitatzeko eskumena duen agintariari, lehen leheraldian ezarria, espedientearen sartzeko. Agintari eskudunak, bestalde, albaitariaren egiaztagiria edo txostena Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuari bidaliko dio, baita Osasun Saileko Zaintza Epidemiologikoko Unitateari ere. Baldin eta behaketa egin eta osasunerako arriskuak daudela ikusten bada,

udal agintariek luzapena eman dezakete edo zakurra zentroan sartzeko edota bakartzeko erabakia har dezakete.

3. Erasoak berekin ez badakar haginkadaz eragindako lesiorik, zakurraren jabeak edota edukitzaileak albaitari ofizialaren edo hark hautatu duen eta ahalmena duen albaitariaren esku jarriko du behaketa egin diezaion, animalia iren izaerak ekar lezakeen arriskua ebaluatzeko, albaitariak egoki irizten dion denboran. Hartara, egiaztagiri egokia egingo du, eta jabeak egiaztagiri hori igorriko dio agintari eskudunari, espedientea tramita dezan.

12. artikulua.-Debekuak.

1. Beren beregi dago debekatuta:

a) Animaliei tratu txarra ematea edo sufrimendua edo kaltea eta larritasuna eragin diezaiokeen ezer egitea justifikaziorik gabe.

b) Bertan behera uztea.

c) Halaber, debekatuta dago ordenantza honetako edozein animalia iren gorpuak herri bidean bertan behera uztea, eta gorpua dagoela jakinarazi behar zaio udal zerbitzuari, halakoetan egin beharrekoa burutu dezan.

d) Bizirik irauteko beharrezko janaririk ez ematea edota higiearen eta osasunaren aldetik egokiak ez diren establezimenduetan izatea.

e) Mozketak egitea, salbu eta beharrezkoak direnean eta albaitariak kontrolatuta daudenean, funtzioen aldetik hala behar delako edo arrazaren ezaugarriei eutsi ahal izateko.

f) Drogak edo botikak ematea edo kalte fisikoa edo psikikoa eragin diezaiokeen edozein manipulazio artifizial egitea animalia iren, lehian aritzeko errendimendua hobetzeko bada ere.

g) Beren izaerari ez dagozkion edo tratu iraingarriak dakartzaten jokabideak eta jarrerak harraraztea.

h) Animalia iren arteko borrokak.

i) Animalia iren herri bidean hiltzea, ezinbestean hala egin behar denean izan ezik.

j) Animalia iren 14 urtetik beherakoei eta ezinduei saltzea, dohaintzan ematea edo lagatzea, ahalmena edo babesaren duenaren baimena izan barik.

k) Animalia iren salmenta ibiltaria edo lagapena herri bidean, baimendutako azoketan edo merkatuetan izan ezik.

- l) Administrazioaren kontrola ez duten laborategiei edo klinikei animaliak saltzea.
- ll) Animaliak ematea publizitatean edo sari gisa erabiltzeko, salbu eta animalion kostubidezko transakzioaren ondoriozko negozio juridikoen kasuetan.
- m) Babestutako espezieetako animaliak saltzea, baita haien legeria espezifikokoaren arabera edukitzea eta erakustea ere.

2. Halaber, beren beregi dago galarazita:

- a) Janaria fabrikatzeko, saltzeko, biltzeko, garraiatzeko eta maneiatzeko ibilgailuetan edo lokaletan animaliak sartzera eta egotea, osasun agintaritzak horretarako baimena ematen duenean izan ezik.
- b) Animaliak ikuskizun publikoak egiten diren lokaletan, geletan eta gunetan sartzera eta egotea, baita igerileku publikoetan, osasun lokaletan eta antzeakoetan eta hezkuntza, kultura edo jolas egiteko establezimenduetan ere, horien arau espezifikoek hala debekatzen badute.
- c) Jendearentzat irekita dauden gainerako establezimenduen titularrek, haien irizpidearen arabera, bertan animaliak sartzera eta egotea debekatu dezakete, eta ikusteko moduko tokian adieraziko dute debeku hori.
- d) Animaliak erkidegoko toki pribatuetan eta kultur elkarteetan, jolas egiteko tokietan, auzokideetan erkidegoko erabilera komuneko tokietan, etab. sartzera eta egotea elkarte edo erakunde horiek eraentzen dituzten arauetara lotuta egongo dira, ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren 2. lerroaldean xedatutakoari kalterik egin gabe.
- e) Debekatuta dago animaliak balkoietan, garajeetan, pabiloietan, sotoetan, lorategietan edo antzeko beste edozein lokaletan edo hiri lurretan izatea edo sartzera animalioi eragozpenak badakarzkie auzokideei edo oinezkoei.
- f) Debekatuta dago ere etxe animalien ohiko establezimendua edo erdi establezimendua parkeetan, lorategi publikoetan eta hiriko lurtzat jotzen diren lurretan.
- g) Laguntzako animaliak igogailuetan igotzean edo jaistean, gainerako pertsonak ez dute igogailu hori aldi berean erabiliko, pertsona horiek hala eskatu badute.
- h) Debekatuta dago edozein espezieetako animaliak solte ibiltzea jendea dabilen kanpoko gunetan edo herritarrei zabalik dauden lokaletan, are gutxiago animalia arriskutsuak, basatiak edota kaltea egiteko fama duten animalia basatiak, horientzat gordetako gune zoologikoetatik eta egoetatik kanpo.

13. artikulua.-Salbuespenak.

1. Aurreko artikuluetan xedaturikoa gorabehera, zakur gidariek lagunduta dauden ikusmen urriko pertsonak sartu ahal izango dira toki, ostatu, establezimendu, lokal eta garraio publikoetan. Aipaturiko establezimenduen artean, ospitale publikoak eta pribatuak ditugu, baita osasun laguntzako zentroak ere.

2. Ikusmen urriko pertsonak, eskaera egin ondoren, animalia zakur-gidaria dela egiaztatu egin beharko du, baita osasunaren aldetik dauden eskakizunak betetzen dituela ere.

3. Zakur-gidariak gaixotasun, agresibitate, garbitasunik eza edo, oro har, pertsonentzako arrisku zantzuak baditu, ezin izango du aurreko artikuluetan aipatzen diren tokietan sartu.

14. artikulua.-Laguntzako animalien erkidego barruko desplazamenduak.

Erkidego barruan ibili beharreko zakur, katu eta hudoen jabeek edota edukitzaileek pasaporte batekin ibili behar dute beti, Nekazaritza eta Arrantzako kontseilariak 2004ko irailaren 27an emandako Aginduan arauturiko pasaportearekin, edo haren ordezkoi araudian araututakoarekin, betiere albaitari ofizialak edo ahalmena duen albaitariak emanda.

II. KAPITULUA. ZAKURREI BURUZKO XEDAPEN ESPEZIFIKOAK.

15. artikulua.-Araubide orokorra.

Euskal Autonomia Erkidegoan zakurrak edukitzeari buruzko ekainare 1eko 101/2004 Dekretuan, animalia arriskutsuak edukitzeari buruzko araubide juridikoaren abenduaren 23ko 50/1999 Legea garatu duen martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuan eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoa aplikatu behar zaie zakurrei, baita aurreko tituluetan xedaturikoa ere, bereziki zakurren identifikazioari eta erregistroari dagokionez.

III. KAPITULUA. ANIMALIA ARRISKUTSUEI BURUZKO XEDAPEN ESPEZIFIKOAK.

16. artikulua.-Araubide orokorra.

Animalia arriskutsuak edukitzeari buruzko araubide juridikoaren abenduaren 23ko 50/1999 Legean, hura garatzen duen martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuan, eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritakoa aplikatu behar zaie ordenantza honetako 3. artikuluan definituriko animalia arriskutsuei.

17. artikulua.-Lizentzia.

1. Animalia arriskutsuak edukitzeari buruzko araubide juridikoaren abenduaren 23ko 50/1999 Legearen itzalean arriskutsutzat hartutako edozein animalia edukitzeko, aurretik administrazio lizentzia behar da, eskatzailea bizi den udalerriko udalak eman beharrekoa, edo udalean jasota utzi ondoren, merkataritza edo hezteko jarduera egiten duen udalak eman beharrekoa, betiere gutxienez honako eskakizun hauek betetzen direla egiaztatu ondoren:

a) Adin nagusikoa izatea.

b) Honako hauengatik zigortuta ez egotea: giza hilketa, lesio edo torturagatik, askatasunaren kontra edo osotasun moralaren kontra, sexu askatasunaren eta herri osasunaren kontra egiteagatik, taldeko armatuko edo narkotrafikoko kidea izateagatik edo epaileak emandako ebazpena dela bide animalia arriskutsuak edukitzeko eskubiderik ez izateagatik.

c) Animalia arriskutsuak edukitzeari buruzko araubide juridikoaren abenduaren 23ko 50/1999 Legearen 13. artikuluan ezarritako zigor osagarriren batekin zigortutako arau-hauste larri edo oso larriengatik zigortua izatea. Hala eta guztiz ere, ez da eragozpena izango lizentzia eskuratzeko edo, hala denean, berritzeko, lizentzia aldi batez eteteko zigorra jaso izana, betiere eskabidea egitean lehenago ezarritako etenaldi zigorra osorik bete bada.

d) Animalia arriskutsuak edukitzeko gaitasun fisikoa eta jarrera psikologikoa izatea.

e) Hirugarrenentzako kalteetarako erantzukizun zibiletako aseguruia gauzatu izana egiaztatzen duen agiria, gutxienez 120.000 euro-ko estaldurarekin.

Animalia arriskutsuen jabeek, ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren 13.3.e) artikuluaekin bat etorrituz, aurreko atalean ezarritakoaren araberrako aseguru bat gauzatzear gain, 10 eguneko epearen barruan kontratatu beharko dute aseguruia animalia

identifikatzen denetik hasita eta animalia erregistroan inskribatu baino lehen. Aseguru hori beste aseguru batzuen barruan egon daiteke, baina, nolanahi ere, ziurtagiri bidez egiaztatu beharko da kontratazioa, 101/2004 Dekretuaren III. Eranskinean agertzen den ereduaren arabera, betiere aseguru-etxeak emandako kontratazioa. Beren beregi aipatuko da bertan aseguruak estaltzen duen zakurraren identifikazioa, baita iraunaldia eta mugaeguna ere.

Zakurraren titularra izango da animalia bizitza osoan aseguruarekin estalita egoteko arduraduna, indarreko erantzukizun zibileko aseguruaren bidez, eta horretarako, une egokian behar diren berriztapenak egingo dira.

f) 1. ataleko b) eta c) lerroaldeetan xedaturiko eskakizunak bete direla egiaztatzeko, erregistroek emandako egiaztagiri negatiboak eman beharko dira. Gaitasun fisikoa eta psikologikoa lehenago aipatutako martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuarekin bat etorritik lorturiko ziurtagiriekin egiaztatuko dira.

2. Interesa duenak eskatuta eman edo berrituko du alkate-udalburuak administrazio lizentzia, 50/1999 Legean xedatu denarekin bat etorritik, aurreko atalean ezarritako eskakizunak bete direla egiaztatu ondoren.

3. Lizentziak 5 urteko indarraldia izango du, eta epealdi berean berrizta daiteke lizentzia ondorengo urteetan. Hala eta guztiz ere, lizentziak indarraldia galdu egingo du titularrak aurreko ataletan ezarritako edozein eskakizun betetzeari uzten dion momentuan. Lizentzian agertzen diren datuen edozein aldaketa egiten denean, horren berri eman beharko dio titularrak lizentzia emateko organo eskuduna den alkate-udalburuari 15 eguneko epearen barruan, aldaketa egiten den egunetik kontatzen hasita betiere.

4. Indarreko administrazio lizentzian eragina duen esku-hartzea, kautelazko neurria edo etenaldia, epaile edo administrazio bidez erabakia, beste lizentzia bat emateko edo berritzeko zioa izango da haien kendu arte.

5. Artikulu honetako 1. lerroaldeko eskakizunak bete gabe eman diren lizentziak deusezak izango dira ondorio guztietarako eta, beraz, titularrak lizentziarik ez duela ulertuko da.

18. artikulua.-Animalia arriskutsuen erregistroa.

1. Lizentziaren titularrari dagokio animalia arriskutsuen udal erregistroan erregistratzea animalia 15 eguneko epearen barruan, lizentzia eskuratzen denetik kontatzen hasita.

2. Animalia arriskutsuen udal erregistroari jakinarazi beharko zaio animalia-aren salmenta, esku-aldaketa, dohaintza, lapurreta, heriotza edo galera, eta halaxe agerraraziko da erregistroko orrian.
3. Animalia arriskutsua Euskal Autonomia Erkidegotik kanporako udal-erri batera eramaten bada betiko edo 3 hilabetetik gorako epealdirako, animalia inskribatu beharko du nahitaez udal erregistroetan.
4. Animalia-aren titularrak artikuluko honetan araututakoa betetzen ez badu, zigor administrazio egokia ezarriko zaio, 50/1999 Legearen 13. artikuluan xedatu denarekin bat etorritik.

19. artikulua.-Segurtasun neurriak.

1. Animalia arriskutsuen jabeek, hezleek edo edukitzaileek herritarren segurtasunaren inguruko indarreko legerian ezarritako arau guztiak bete behar dituzte nahitaez, halako moldez non animaliak eta gizakiak elkarrekin modu egokian biziko direla bermatuko baita eta herritarrentzako eragozpenak saihestuko baitira.
2. Animalia arriskutsuak herri tokietan eta guneeetan egoteko, animalia gidatzen eta kontrolatzen duenak berekin eraman behar du nahitaez ordenantza honetako 17. artikuluan aipatutako administrazio lizentzia, baita animalia arriskutsuen udal erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria ere.
3. Finka, landa etxe, txalet, lur-zati, terraza, patio edo bestelako edozein toki mugatutan dauden animalia arriskutsuek lotuta egon behar dute, baldin eta ez badute toki horretan sartzen edo hurbiltzen diren animaliak edo pertsonak babesteko nahikoa eremu, altuera eta itxiera egokirik.
4. Animalia arriskutsuen hezleek eta merkatariak animalio- edukitzeko instalazio eta baliabide egokiak izan behar dituzte.
5. Animalia arriskutsuen bat lapurtzen edo galtzen denean, horren berri eman beharko dio titularrak animalia arriskutsuen udal erregistroko arduradunari 48 orduko epean, gertaera horien berri dagoenetik kontaktatzen hasita.

20. artikulua.-Salbuespenak.

Egoera dela-eta hala egitea komeni denean, jabeek zenbait betebeharrak ez betetzeko salbuespenak ezarri daitezke, honako kasu hauetan:

- a) Animalioek gizarte eginkizunerako erabiltzen dituzten erakunde publikoak edo pribatuak.
- b) Guardiako zakurrak eta abereak babesteko eta erabiltzeko zakurrak erabiltzen dituzten nekazaritzako ustiategiak, baita ehizarako jardueretarakoak ere, baina horiek ezin izango dira inola ere erabili 50/1999 Legean ezarritako legez kontrako jardueretarako.
- c) Laneko eta kiroleko probak, bertan parte hartzen duten animaliak aukeratzekoak eta agintari eskudunak baimenduak eta gainbegiratuak, baina aparte gelditzen dira borroka eta erasoetarako ariketak, indarreko araudian eta ordenantza honetan xedatu denaren arabera.

21. artikulua.-Garraioa.

Animalien ongizateari buruzko araudi espezifikoarekin bat etorritik egin behar da animalia arriskutsuen garraioa, eta garraioan eta zamaletarako itxaronaldietan pertsona, ondasun eta beste animalien segurtasuna bermatzeko arretazko neurriak hartu behar dira, egoera dela-eta komeni direnak hain zuzen ere.

II. TITULUA. ANIMALIEKIN LOTUTAKO JARDUERAK.

I. KAPITULUA. GUNE ZOOLOGIKOAK.

22. artikulua.-Araubide orokorra.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko gune zoologikoak baimentzeari, erregistratzeari eta kontrolatzeari buruzko azaroaren 15eko 444/1994 Dekretuan ezarritakoak eraenduko ditu gune zoologikoak, edo horren ordezkotako araudian xedatzen direnak.
2. Halaber, aurretiazko udal lizentzia eskuratu behar dute nahitaez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenaren Babesari buruzko otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorrean, lizentzia eskuratzetik salbuetsitako jardueren zerrenda ezarri duen 165/99 Dekretuan eta aplikatu beharreko gainerako araudietan kasu bakoitzean xedatu duenaren arabera.

II. KAPITULUA. LEHIAKETAK.

23. artikulua.-Herri kirolak.

Oinarrizko elementu gisa etxeko animaliak erabiltzen diren herri kiroleko modalitateak egiteko, halaber, udalaren aurretiazko baimena behar da, eta Eusko Jaurlaritzak arauetan ezarritako eskakizunei eta baldintzei lotu beharko zaizkie. Nolanahi ere, higiearen eta osasunaren aldetik eta janariaren aldetik egoera egokia dela zainduko da, bereziki honako hauek:

- a) Debehatuta dago animaliei alkohola, drogak edo botikak ematea edo kalte fisikoak edo psikikoak eragin diezazkiekeen edozein modu artifizialean maneiatzea, lehiaketa batean errendimendua hobetzeko bada ere.
- b) Idi edo zaldi probetan edo antzekoetan parte hartzen duten idien edo zaldien kirol probetan, baimena eskatu beharko dio erakunde, elkarte edo pertsona antolatzaileak foro organo eskudunari, EAEko idi edota zaldien kirol probetan parte hartzen duten animaliak identifikatzeko eta osasun baldintzak ezartzeko sistemak arautzen dituen 1993ko martxoaren 11ko Aginduan xedatu denarekin bat etorriz.
- c) Baldin eta kirol probak idiekin edo zaldiekin egitean gorabeheraren bat edo gertaeraren bat jazotzen bada, hala nola animalia zauritzea edo hiltzea edo probarekin zerikusirik ez duen gertaeraren bat, gertaturikoa argitzeko udalak eskatzen dion informazio guztia eman beharko du pertsona, elkarte edo erakunde antolatzaileak.

III. KAPITULUA. ANIMALIA TXIKIEN KONTSULTATEGIAK, KLINIKAK ETA OSPITALEAK.

24. artikulua.-Araubide orokorra.

Albaitari kontsultategirako, albaitari klinikarako eta albaitari ospitalerako establezimenduek arloko arau aplikagarriak bete beharko dituzte eta, era berean, udal lizentzia eskatuko dute.

IV. TITULUA. IKUSKAPENA ETA KONTROLA.

25. artikulua.-Ikuskapena eta kontrola.

1. Udaltzainek edo beste funtzionario batzuek ikuskatu eta kontrolatuko dituzte ordenantza honetan arauturiko arloak. Hartara, agintaritzako agentetzat joko dira eta akta egin ahal izango dute (interesa duenak bat ez datorrela agerraraz dezake bertan); akta hori interesa duenari jakinaraziko zaio salaketa akta edo buletinaren bidez, eta organo eskudunari igorriko zaio, beharrezko neurriak har ditzan eta, bidezkoa bada, zigor prozedura has dezan.
2. Baldin eta arau-haustek delitu edo falta badira, zigorra ezartzeko administrazio organo eskudunak gertaeren berri emango dio jurisdikzio penalari, eta zigor prozedura etengo du harik eta epailearen ebazpen irmoa izan arte. Orduantxe etengo da izena emateko epea.
3. Epaileak esku hartu baino lehenago administrazio espedienteen izapideak egiten dituzten agintariek hartutako kautelazko neurriei eutsi ahal izango zaie, epaileek beren beregiko adierazpena izan arte.

V. TITULUA. ZIGOR ARAUBIDEA.

I. KAPITULUA.

XEDAPEN OROKORRAK.

26. artikulua.-Arau-haustek eta zigorrak.

1. Administrazio arau-haustek dira honako hauetan halakotzat ezarritako egintzak eta ez-egiteak: Animalien Babesari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legean, Animalia Arriskutsuak Edukitzeari buruzko Araubide Juridikoaren abenduaren 23ko 50/1993 Legean, EAEko Osasun Antolamenduari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta ordenantza honetan ezarritakoak, tokiko gobernua modernizatzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak gehitutako apirilaren 7/1985 Legearen XI. Tituluan xedatutakoa dela bide.
2. Artikulu honetako aurreko atalean aipatzen den araudian xedatutakoaren arabera zigortuko dira administrazio arau-haustek, arau-haustek zuzenago identifikatzeko eta zigor zehatzak finkatzeko ordenantza honetako arau-hausteen xehetasunei eta zigorren mailari kalterik egin gabe.

1. atala. Animalien babesak.

27. artikulua.-Arau-hausteak.

1. Honako hauek dira arau-hauste arinak:

- a) Herritarren higienarako, segurtasunerako edo lasaitasunerako garrantzirik ez duten ordenantza honetako betebeharrak ez betetzea.
- b) Zentsuko identifikaziorik gabeko laguntzako animaliak edukitzea, identifikazioa eskatzen denean.
- c) Animaliak garraiatzea ordenantza honetan ezarritakoa bete gabe.
- d) Laguntza eta zaintza egokia egiterik ez dagoen toki orotan animaliak izatea.
- e) Tratu iraingarria ematea edo hari ez dagozkion jarrerak eta jokabideak harraraztea animaliei.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoko zakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 101/2002 Dekretuaren 3. artikulua dakartzan zakurren zentsuko identifikazioa edo zentsuko aldaketak A.I.E.O.ri ez jakinaraztea.

2. Honako hauek dira arau-hauste larriak:

- a) Animaliak beharrezko janari, edari edo osasun laguntzarik gabe edo haien behar fisiologikoei eta etologikoei egokitzen ez zaizkien instalazioetan mantentzea, bai gunearen aldetik, bai higienaren eta osasunaren aldetik.
- b) Animalien esterilizazioa, mozketak eta hilketak al baitariaren kontrolik gabe edo Animalien Babesari buruzko Legean eta hura garatzeko arauetan ezarritakoaren kontra, bereziki ekainaren 1eko 101/2004 dekretuko 9. artikuluaaren kontra.
- c) Animaliei txertorik ez jartzea edo nahitaezko tratamendurik ez egitea.
- d) Animaliak baimenik gabe saltzea.
- e) Animaliei tratu txarrak ematea edo erasoak egitea, beharrezkoak ez diren sufrimendu, lesio edo mozketak eginda.
- f) Beharrezkoak ez diren sufrimendua eta kalteak eragin diezazkieketen substantziak ematea animaliei, zuzenean edo janarien bidez.
- g) Kalteak eragin ditzaketen animaliak behar bezala ez zaintzea.
- h) Zakurrak hiriko bide eta guneko publikoetan eta higiezin kolektiboetako zati komunean kontrol barik joatea eta animaliaaren ezaugarrietarako egokia ez den katearekin edo uhalarekin lotuta ez egotea; gutxienez 2 metrokoa izan behar du kateak edo uhalak.

Betebehar horretatik baztertuta gelditzen dira animalientzat bereziki dauden zabalaldirako aldeetan daudenean animaliak.

i) Albaitari laguntza egokirik ez ematea animaliei min edo sufrimendu larriak eta agerikoak dituztenean.

j) Administrazio baimenik gabeko ikuskizunetan animaliei parte harraraztea.

k) 3 arau-hauste arin egitea, ebazpen irmoaren bidez zigorra ezarrita, zigor espedientea hasi aurreko 2 urtean.

l) Metro koadroko zakur kopurua ezartzen duen ratioari eta zakurrak aurreko artikuluan ezarritako zenbait lokaletan eta ibilgailutan sartzeari eta egoteari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren 5.1. eta 2. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea.

m) Ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuak animaliak edukitzeko baldintza bereziak bete behar dituzten zakurrei ezarritako baldintza bereziak ez betetzea.

n) Animaliak aldi batez mantentzeko, hezteko edo saltzeko baldintzak ez betetzea establezimenduek, baita Animalien Babesari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legean ezarritako eskakizun eta baldintza guztiak edo horiek garatzeko arauetan ezarritakoak ere, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoko gune zoologikoak baimentzeari, erregistratzeari eta kontrolatzeari buruzko azaroaren 15eko 444/1994 Dekretuarekin bat etorriz:

- 8. artikuluan aipatzen den erregistro libururik ez izatea.

- Osatu gabeko erregistro liburuak edo datuak falta dituzten erregistro liburuak edukitzea.

- Animaliak CITES araudia edo aplikatu beharreko beste edozein araudi bete gabe saltzea, edukitzea, trafikatzeta, merkaturatzea eta erakustea.

- Dekretu honetan aipatzen diren establezimenduak irekitzeko baimenik ez izatea edo baimena iraungita egotea.

- Erregistroari ez jakinaraztea zentroan edo establezimenduan eginiko aldaketak.

- Ikuskapen lanak galaraztea edo zailtzea.

3. Honako hauek dira arau-hauste larriak:

a) Animalien heriotza eragitea erasoen edo substantzia toxikoen bidez.

b) Etxeko animalia edo laguntzako animalia bertan behera uztea.

c) Krudelkeria, tratu txarra edo ezkutatu gabeko sufrimendua dakarten zinemako edo telebistako irudietan filmatzea animaliak.

- d) Baimendutako ikuskizunetan parte hartzen duten animaliei anestesia, drogak eta bestelako produktuak ematea, otzanagoak izateko, errendimendu fisiko hobea lortzeko edo animalia jokatze naturalaren kontrako beste edozein helburu lortzeko.
- e) Zakur arraza arriskutsuak heztea edo gurutzatzea.
- f) Pozoitutako janariak uztea herri eta guneko publikoetan.
- g) Debekatutako ikuskizunetan parte harraraztea animaliei.
- h) 3 arau-hauste larri egitea, ebazpen irmoaren bidez zigorra ezarrita, zigor espedientea hasi aurreko 2 urtean.

28. artikulua.-Zigorrak.

1. Animalien Babesari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legearekin bat etorriz, honelako isunekin zigortuko dira animalien babesaren arloko arau-hausteak:
 - a) Arau-hauste arinak, 30,05 euro-300,51 euro bitarteko isuna.
 - b) Arau-hauste larriak, 300,52 euro-1.502,53 euro bitarteko isuna.
 - c) Arau-hauste oso larriak, 1.502,54 euro-15.025,30 euro bitarteko isuna.
2. Zigorren kopuruak urtekoak izango dira eta automatikoki eguneratuko dira kontsumorako prezioen indizearen arabera; indize hori aurreko urteko zigorren kopuruari aplikatuko zaio.
3. Azaroaren 15eko 444/1994 Dekretuaren 14. artikuluan xedaturikoarekin bat etorriz zigortuko dira n) atalean araututako arau-hauste larriak.

29. artikulua.-Arau-hauste osagarriak.

1. Arau-haustea izan duen jabearen animaliak konfiskatzeko agindua emango du zigor ebazpenak, animalia osotasun fisikoa bermatzeko beharrezkoa denean.
2. Etxekotutako animaliak beren beregiko instalazioetan zainduko dira, eta ahal dela hirugarrenei lagako zaizkie, eta besterik ezean, hil egingo dira.
3. Arau-hauste larriak edo oso larriak egiteak instalazioak, lokalak edo establezimenduak ixtea ekar lezake, gehienez 2 urtez arau-hauste larrien kasuan eta 4 urtez gehienez arau-hauste oso larrien kasuan, baita beste animalia batzuk gehienez 4 urtez erosteko debekua ezartzea ere.
4. Oso larriak diren faltetan berrerortzeak 3 urteko epearen barruan, administrazio baimena galtzea ekarriko du.

30. artikulua.-Zigorren mailak.

1. Isunen kopuruen mailak ezartzeko eta aurreko artikuluko 3. atalean ezarritako zigorren iraupena finkatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan:

a) Gizartean edo osasunean izandako eragina eta eginiko arau-haustearen ondoriozko kaltea.

b) Legez kontra irabazteko asmoa eta arau-haustea eginda lorturiko etekinaren zenbatekoa.

c) Arau-hausteetan berrerortzea. Berrerortzea izango da ordenantza honetan ezarritako arau-hausteetako bat egiteagatik administrazio bidean irmoa den ebazpenaren bidez ezarri bada zigor espedientea hasi aurreko 5 urteko epearen barruan.

d) Arau-haustearen erantzukizun-mailan eragina izan dezakeen beste edozein, astungarria edo aringarria izateko. Horretarako, berebiziko garrantzia izango du animalien kontrako indarkeria erabiltzeak haurren edo ezindu psikikoen aurrean.

2. Era berean, ahal den neurrian eta kasuan kasuko administrazio arloaren berezitasunak eskatzen dituzten ñabardurekin eta egokitzapenekin, arlo juridikoaren eta erruduntasunaren gaineko arau penalak ezarri beharko dira, ondorio bertsuetarako arlo horretako beste gorabehera garrantzitsu batzuk aintzat hartzeari kalterik egin barik betiere.

3. Baldin eta gertaera beretan arau horietan ezarritako bi administrazio arau-hauste edo gehiago egiten badira, kopururik altueneko zigorra jarriko da, eta zigor eskumena duen organoa izango da espedientea izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna.

31. artikulua.-Zigorrak ezartzeko eskumena.

1. Animalien Babesari buruzko urriaren 29ko 6/93 Legean foru organoek duten zigor eskumenari kalterik egin gabe, udalak ezarriko ditu ordenantza honetan xedaturikoaren kontrako arau-hausteak.

2. Alkate-udalburua izango da arintzat hartzen diren arau-hausteen espedienteak hasteko eta ebazteko organo eskuduna, udalari indarreko legerian ezarritako eskumenen barruan.

3. Udalbatza izango da arau-hauste larriak ebazteko organo eskuduna.

4. Foru organo eskudunak zigortuko ditu arau-hauste oso larriak.

5. Alkate-udalburuari eskuordetzen zaio arau-hauste larriengatiko zigorrak ezartzeko eskumena.

32. artikulua.-Kautelazko neurriak.

1. Delitu edo falta izan daitezkeen arau-hausteen kasuetan, zigorra ezartzeko administrazio organo eskudunak gertaeren berri emango dio jurisdikzio penalarari, eta ez du zigor espedientearekin jarraituko harik eta epailearen ebazpen irmoa izan arte.

Ordura arte, eten egiten da izena emateko epea.

2. Administrazio espedienteak izapidetzen dituzten agintariak epaileen esku-hartzea baino lehen hartutako kautelazko neurriak indarren jarraituko dute harik eta epaileen beren beregiko ebazpena izan arte.

3. Zigor espedientea hasi ondoren, eta arau-hauste berririk ez gertatzeko, espedientea izapidetzen duenak kautelazko neurri hauek har ditzake, betiere horretarako zioak emanda:

a) Legean ezarritako kasuren bat jasan izanaren aztarnak dituzten animaliak kentzea prebentzio gisa eta, animalien zentro batean sartu ondoren, haien zaintzarako.

b) Instalazioak, lokalak eta establezimenduak ixtea prebentzio neurri gisa.

4. Kautelazko neurriak indarrean jarraitu beharko dute haiek hartzeko arrazoiek dirauten bitartean; nolana ere, animaliak ezin izango dira kendu espedientearen ebazpen irmoa eman ondoren, eta establezimenduaren itxialdia ez da izango Animalien Babesari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 29.2. artikuluan ezarritako epearen erdia.

33. artikulua.-Arau-hausteak eta zigorrak preskribitzea.

1. Ordenantza honetan ezarritako arau-hausteak 4 hilabete igarota preskribituko dira arinak badira, urtebetera larriak badira eta 2 urtera oso larriak badira.

2. Arau-hausteak preskribitzeko epea arau-haustea egin den egunetik hasita zenbatuko da.

3. Zigorrak 5 urtera preskribituko dira 305,00 euroko edo hortik gorako kopurukoak direnean, eta urtebetera kopuru horretatik beherakoak direnean.

4. Zigorra ezartzeko ebazpena irmo bihurtzen den egunaren ondoko egunetik hasita zenbatuko da zigorrak preskribitzeko epea.

2. atala. Animalia arriskutsuak.

34. artikulua.-Arau-hausteak.

1. Animalia arriskutsuak edukitzeari buruzko araubide juridikoaren abenduaren 23ko 50/1999 Legearekin bat etorriz, bertan ezarritakoak izango dira administrazioko arau-hausteak.

2. Hauexek dira arau-hauste oso larriak:

a) Edozein animalia arriskutsu bertan behera uztea, edozein espezie eta edozein zakur; bertan behera utzitako zakurra manuzko identifikazioa ez duena zein jatorriaren eta jabearen gaineko identifikaziorik ez duena da, betiere inork lagunduta ez badoaz animalioak.

b) Zakur edo animalia arriskutsuak edukitzea lizentzia barik.

c) Edozein titulu erabiliz zakur edo animalia arriskutsua saltzea edo esku-aldatzea lizentziarik ez duenari.

d) Agresibitatea areagotzeko edo debekaturiko helburuak lortzeko heztea animalioak.

e) Gaitasun-egiaztagiririk ez duenak animalia arriskutsuak heztea.

f) Animalia arriskutsuen lehiaketak, ariketak, erakustaldiak edo ikuskizunak antolatzea edo egitea animalien agresibitatea erakusteko, edo horrelakoetan parte hartzea.

3. Hauexek dira arau-hauste larriak:

a) Animalia arriskutsua solte uztea edo ihesik ez egiteko edo ez galtzeko beharrezko neurriak hartu ez izana.

b) Animalia identifikatu beharra ez betetzea.

c) Erregistroan ez inskribatzea.

d) Zakur arriskutsua muturrekorik barik edo kate batekin lotuta egon barik ibiltzea herri tokietan.

e) Animalia arriskutsuak garraiatzea 50/1999 Legearen 10. artikuluan xedatu dena urratuz.

f) 50/1999 Legean ezarritako eginkizunak betetzeko agintari eskudunek edo haien agenteek eskatutako informazioa emateari uko egitea edo eman nahi ez izatea, baita okerreko informazioa edo dokumentazio faltsua ematea.

4. Abenduaren 23ko 50/1999 Legean ezarritakoak urratzeak dira arau-hauste arinak, aurreko ataletan tipifikatu ez direnak, eta bereziki honako hauek:

- a) Animalia arriskutsuak edukitzea herri bideetan eta tokietan, haiek daramatzen edo kontrolatzen dituen pertsonak udal lizentziarik izan barik eta erregistroan inskribatu izana egiaztatzen duen egiaztagirik gabe.
- b) Pertsona bakoitzeko zakur bat baino gehiago izatea herri bideetan eta herri tokietan.
- c) Zakur arriskutsuak edukitzea herri bideetan eta tokietan 2 metrotik gorako luzera duen uhal edo katea hedagarriarekin.
- d) Animalia arriskutsuak hartzen dituzten instalazioetarako ezarritako segurtasun neurriak ez betetzea.
- e) Animalia osasun egiaztagiria urtean behin ez aurkeztea.

35. artikulua.-Zigorrak.

Honako isun hauek dituzte aurreko artikuluan ezarritako arau-hausteez:

- Arau-hauste arinak, 150,25 euro - 300,51 euro bitartekoak.
- Arau-hauste larriak, 300,52 - 2.404,05 euro bitartekoak.
- Arau-hauste oso larriak, 2.404,06 euro - 15.025,30 euro bitartekoak.

36. artikulua.-Zigor osagarriak eta kautelazko neurriak.

1. 34. artikuluan tipifikaturiko arau-hausteen ondorioz, zigor osagarriak ezar daitezke: animalia arriskutsuak konfiskatzea, atzematea, esterilizatzea edo hiltzea; establezimendua ixtea eta animalia arriskutsuak edukitzeko lizentzia edo hezle izateko gaitasunari buruzko egiaztagiria aldi batez edo betiko etetea.
2. Delitua edo falta izan daitezkeen arau-hausteen kasuan, agintari eskudunak animalia atzemateko erabakia har dezake harik eta epaileak horren inguruko ebazpena eman arte, eta gertaeren berri emango zaio berehala organo jurisdizionalari.
3. Agintari eskudunek arriskutsutzat jotzea, edo zakurren aurrean esku hartzea eta ezarrita duten harrera zentrorra eramatea baldin eta jabeak ez baditu betetzen ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuak dakartzen neurriak.

37. artikulua.-Zigorrak ezartzeko eskumena.

1. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila izango da hezteko gaitasuna

egiaztagiriari eta hezleak trebatzeko ikastaroen homologazioari buruzko arau-haustek ezartzeko eskuduna.

2. Alkate-udalburua izango da eskuduna gainerako arau-hausteetan. Lurralde eremua gaindituz gero, Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Arrantza Sailari dagokio eskumena.

3. atala. Hondarrak.

38. artikulua.-Arau-haustek.

Apirilaren 21ko 10/1998 Legearekin bat etorriz, hauexek dira animalien arloko administrazio arau-haustek:

- a) Animalien gorozkiak herri bideetan eta plazetan, haurren parkeetan, lorategietan uztea eta, oro har, apaingarrirako edota pertsonak ibiltzen diren edozein tokitan.
- b) Janaria ematea herri bidean eta orubeetan hegaztiei, katuei, zakurrei eta gainerako animalia deslaiei.

39. artikulua.-Zigorrak.

Aurreko artikuluko arau-haustek gehienez 601,01 euro-ko isunarekin zigortuko dira, eta honako hauek kontuan izanik ezarriko da isuna: arduradunaren jokabidea, erruduntasun-maila, berrerortzea eta pertsonen osasuna arriskuan jarri izana.

40. artikulua.-Zigorrak ezartzeko eskumena.

Alkate-udalburua izango da zigorrak ezartzeko organo eskuduna.

4. atala. Osasun antolamendua.

41. artikulua.-Arau-haustek.

EAEko Osasun Antolamenduari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 36.2.b.1. artikulua hautsiko da baldin eta eraso egin duen animalia alaitari ofizialaren edo

ahalmena duen al baitariaren esku jartzen ez bada animalia azterketa egiteko udal agintariak hala egiteko eskatu ondoren, baita hartzen diren kautelazko neurriak ez badira betetzen ere.

42. artikulua.-Zigorrak.

Aurreko artikuluan aipatu diren arau-haustek 3.005,06 euro - 15.025,30 euro bitarteko isunarekin zigortuko dira, ekainaren 26ko 8/97 Legearen 37.1. artikuluan xedatu denarekin bat etorritz.

43. artikulua.-Zigorrak ezartzeko eskumena.

Alkate-udalburua izango da zigorrak ezartzeko organo eskuduna.

5. atala. Ordenantzaren arau-haustek.

44. artikulua.-Arau-haustek.

Honako hauek dira arau-haustek, tokiko gobernua modernizatzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak gehitutako Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen XI. Tituluaren itzalpean tipifikatuak:

- a) Honako ordenantza honek dakartzan eta arloko araudi espezifikoan ezarri ez diren betebeharrak, debekuak edo mugak ez betetzea arau-hauste arina izango da.
- b) Udal zerbitzuen funtzionamendua eragozteko hiriko fauna kontrolatzearekin lotutako jardueretan arau-hauste arina izango da.
- c) Animalia edukitzearen ezaugarriei edo udal agintariak eskatuta animalia al baitariaren esku jartzeari buruzko informaziorik edo dokumentaziorik ez ematea arau-hauste larria izango da, ordenantza honen 7. artikuluan xedatu denarekin bat etorritz.

45. artikulua.-Zigorrak.

Honelako isunak jarriko dira aurreko artikuluan ezarritako arau-hausteetan:

- Arau-hauste oso larriak: gehienez 3.000 euro.
- Arau-hauste larriak: gehienez 1.500 euro.

- Arau-hauste arinak: gehienez 750 euro.

46. artikulua.-Zigorrak ezartzeko eskumena.

Alkate-udalburua izango da zigorrak ezartzeko organo eskuduna.

6. atala. Zigor prozedura.

47. artikulua.-Prozedura.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean araututako zigor ahalmenaren printzipioei lotuko zaie zigor prozedura, eta aurreko ataletako xedapen bakoitzeko araudia eman duenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigor ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea aplikatuko da, edo Zigor Ahalmena erabiltzeko Araudia onetsi duen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretua.

48. artikulua.-Prozesu penala jarraitzea.

1. Baldin eta izapidegileak uste badu, prozeduraren edozein unetan, izapideak egiten ari diren gertaerak legez kontrakoak izan daitezkeela, ebazpena emateko organo eskudunari jakinaraziko dio, eta organo horrek, izapidegileak uste duenari zentzuzkoa irizten badio, gertaeron berri emango dio Ministerio Fiskalari. Gainera, jakinarazpenaren jarduketan gaineko lekukotasuna eskatuko zaio.

Era berean, eginiko jarduketei buruzko jakinarazpena eskatuko zaio Ministerio Fiskalari, noiz-eta administrazio prozeduran aipatzen diren gertaerei buruzko prozesu penala jarraitzen ari izanaren berri dagoenean. Jakinarazpen bera eskatuko da administrazio prozeduran aipatzen diren gertaeren emaitzen edo gertaeren ondorioen gaineko prozesu penala jarraitzen denean.

2. Ministerio Fiskalaren jakinarazpena jaso ondoren, zigor espedientea ebazteko organo eskudunak prozedura etetea erabakiko du harik eta epailearen ebazpen irmoa izan arte.

3. Administrazio prozedura eteteak ez du galarazten harturiko kautelazko neurriei eustea, betiere prozesu penalean erabakitakoekin bateragarriak badira. Ez dira bateragarritzat joko baldin eta kautelazko neurri penalak nahikoak badira zigor

prozedura administratiboetan hartzen diren kautelazko helburuak lortzeko. Ministerio Fiskalari jakinarazi beharko zaio kautelazko neurriei eusteko edo horiek hartzeko ekintza.

4. Nolanahi ere, epailearen ebazpenaren bidez frogatutzat hartzen diren gertaerek lotura ezartzen dute administrazio organoekin horien oinarri diren zigor prozedurei dagokienez.

Ebazpen penalean frogatutzat emandako gertaerekin bat ez datozen gertaeretan oinarritutako administrazio ebazpenak berrikusiko ditu administrazioak bere arioz, ariozko berrikuspenak egiteko prozedurak arautzen dituzten arauen arabera.

49. artikulua.-A.I.E.O.rentzako jakinarazpena.

Zigor organo eskudunek zigor prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren kopia bat bidaliko diote A.I.E.O.ri.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

Baliorik gabe gelditzen dira ordenantza honen kontrako ordenantzak, araudiak edo udal bandoak.

AZKEN XEDAPENA.

Ordenantza hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

I. ERANSKINA. IDENTIFIKATU GABEKO ANIMALIA UZTEKO AGIRIA.

Animalien Babesari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 16. artikuluan eta Animaliak Edukitzea eta Babestea arautzen duen udal ordenantzaren 9. artikuluan ezarritakoa dela bide, aldi batez uzten zaio animalia honako honi:

Jaun/andrea: _____ NAN: _____.

Helbidea: _____ Probintzia: _____ Kalea: _____

Telefonoa: _____ e-maila: _____.

_____ erregistro zenbakiko animalia jabea. Honako ezaugarri hauek ditu:

Arraza: _____ Geruza _____ Kolorea _____ Sexua _____.
Jokabidea _____ Adina, gutxi gorabehera _____.
Zentroan sartu den eguna _____ Ez du identifikaziorik.

Behean sinatzen duenak animalia zaintzea eta zentrorra itzultzea hitzartzen du hala eskatuz gero, noiz-eta hirugarren batek modu sinesgarrian frogatzen badu animalia-aren legezko jabea dela.

Halaber, Animaliak Edukitzearen eta Babestearen gaineko Udal Ordenantzaren 5.1. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako kasuetan, zentro honetara etortzea hitzartzen du, identifikazio-mikrotxipak arioz jartzeko hilabeteko epean, animalia zentro honetan sartzen den egunetik kontaktzen hasita, edo bestela bestelako zentro batean edo albaitari klinika batean hura jarri izana egiaztatzen duen agiria aurkezteko.

_____n, _____(e)ko _____ren _____(e)(a)n.

Irakurria eta onartua _____.

(Animalia uztea onartzen duenaren sinadura).

II. ERANSKINA. ERASO BATEN ONDOREN ANIMALIAREN AZTERKETA NAHITAEZKOA DELA JAKINARAZTEA.

Animalien Babesari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 11. artikuluan xedatu denarekin bat etorritik, udalek, besteak beste, herritarrari eraso egin dioten animaliak bakartzeko edota zentro batean sartzeko agindua eman beharko diote. Halaber, Animaliak Edukitzeari eta Babesteari buruzko udal ordenantza arau-emailearen 11. artikuluan ezarri da lesioak eragin dituen animalia-aren jabeak edota edukitzaileak jarraitu beharreko prozedura, baita araua ez betetzeak dakarren zigorra ere.

Horrekin bat etorritik, hauxe jakinarazten da:

Lehena: _____ jaun/andreak, helbidea _____
(e)ko _____ kalean duenak eta _____ NANaren

eta _____ telefonoaren jabeak, _____ arrazako _____ identifikazio zenbakia duen animalia erasotzailearen jabe edo edukitzailea gisa (horri loturiko animalien kasuan, 24 orduko epearen barruan albaitari ofizialaren edo hark hautatu duen eta ahalmena duen albaitariaren esku utzi behar duela animalia, azterketa egin diezaion. Azterketa amaitu ondoren, albaitariaren egiaztagiria/txostena bidaliko dio _____(e)ko udaleko _____ ri).

Bigarrena: Edozein gauza argitzeko edo jasotako informazioa baino informazio zabalagoa izateko, _____(e)ko udaletxeko _____(e)ra jo behar duzu, _____(helbidea) edota _____ telefonora deitu.

_____, _____(e)ko _____ren _____(e)(a)n.

Irakurria eta onartua _____.

(Animalia uztea onartzen duenaren sinadura).

III. ERANSKINA. ANIMALIA HOZKARIEN GAINEKO ALBAITARI-TXOSTENA.

Albaitaria:	_____.			
Elkargokide	zk:	_____.		
Helbidea:	_____	Tfnoa:	_____.	
Animaliaren				datuak.
Jabea				N.A.N.
Helbidea	Udalerria		Telefonoa.	
Espezia	Identifikazioa		Izena	Arraza.
Adina	Sexua	Erantzukizun	zibileko	asegurua.

Egiaztatzen dut:

Aipaturiko animalia hori zaindu eta aztertu dela, eta hura aztertu ondoren _____ egunetan, ez zaio aurkitu gaixotasun zoonosikoa izateko sintomarik. Hori dela-eta, amaitutzat ematen dut behaketa eta zaintza aldia.

Sinadura eta zigilua Tokia eta data.